

2018ko EKITALDIKO MEMORIA

1.- ENPRESAREN JARDUERA

NATURGOLF SA, lehenago TOURMONTANA SA, 1993ko azaroaren 19an eratu zen. Haren sozietatearen egoitza Urturiko (Araba) Arriba kalean (zk/g) dago.

Kapital sozietateei buruzko Legeak arautzen du sozietatea; horren testu bateratua uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen.

Honako hau du xede sozietateak: batetik, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta turismoaren inguruko jarduerak sustatzea, garatzea eta gauzatzea; bestetik, naturagune babestuetan, natura ingurunearekin zerikusia duten jarduerak kudeatzea (betiere, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten ekimenak sustatuz, Arabako Lurralde Historikoko gizartea eta ekonomia garatzen eta hobetzen lagunduko duten jarduerak).

Sozietatearen xede horren barruan, besteak beste, honako jarduera hauek sartzen dira:

- a) Enpresa ekimenak sustatzea eta garatzea, batez ere era guztietako kirol instalazioak eraikitzeari eta ustiatzeari dagozkionak, ordainaren bidez nahiz ordainik gabe.
- b) Lehen adierazitako jarduerak egiteko beharrezkoak diren tresna eta izapide mota guztiak kudeatzea.
- c) Aipatutako jardueretarako eta ekimenerarako gaur egun dauden edo etorkizunean sortuko diren hainbat laguntza mota, dirulaguntza edota kreditu berezi zuzenean nahiz zeharka bideratzea eta kudeatzea.
- d) Naturagune babestuak zaintzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.
- e) Arabako Lurralde Historikoko landa garapenari lotutako proiektuetan enplegua sustatzea.
- f) Naturagune babestuei buruzko liburuak, liburuxkak eta zabalkunderako materiala argitaratu eta saltzea.

Egun, haren jarduera nagusia da Izki Golf esparrua, alegia, Urturiko golf zelaia, ustiatzea.

2013ko martxoan amaitu egin zen Lagrango golf zelaiaren jarduera. Gainera, 2014ko maiatzaren 7an, Lagrango Udalak eskatu zuen itzul zekizkiola bere garaian Naturgolf SAri laga zizkion lursailak, eta 2016ko ekitaldian itzuli egin dira haiek.

Sozietatearen moneta funtzionala euroa da.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. IRUDI ZEHATZA

Honekin batera doazen 2018ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak 2018ko abenduaren 31ra arteko kontabilitate erregistroetatik abiatuta egin dituzte administratzaileek. 1514/2007 Errege Dekretuak, Kontabilitate Plan Orokorra eta hari abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuaren bidez aplikatutako aldaketak onartzen dituenak, jasotako kontabilitate printzipioak eta balorazio irizpideak eta kontabilitate gaietan indarrean dauden gainerako lege xedapenak aplikatu dira kontuotan, eta ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzen irudi zehatza erakusten dute.

Ez dago arrazoi berezirik irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak onartuko ditu honekin batera doazen Urteko Kontuak eta aldaketarik gabe onartuko direla erabakiko du. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2018ko ekainaren 20ko Ohiko Batzar Orokorrean onartu ziren.

Sozietatea ez dago legez behartuta 2017ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzera, baina ikuskatu egin dira, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

2.2. BALORAZIOAREN ALDERDI KRITIKOAK ETA ZIURGABETASUNAREN ZENBATESPENA

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu Sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da egon hurrengo ekitaldiko aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Sozietateak galera jarraituak izan ditu eta bere jarraitutasuna akziodun nagusiaren (Arabako Foru Aldundia) finantza babesaren menpe dago, bera izan baita historikoki beharrezko ekarpenak egin dituena.

Urteko kontuak prestatzeko ezinbestekoa da zuzendaritzak garrantzizko kontabilitate kalkuluak, aburuak, hipotesiak egin ditzala artean onartutako kontabilitate politikei eta haiekin zerikusia duten aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta zehetasunei buruz. Kalkulu horiek, orobat, aktibo ez materialen eta ukiezinen bizitza baliagarriari buruzkoak dira (5. oharra eta 6. oharra).

2.3. INFORMAZIOA ALDERATZEA

Balantzearen, galera eta irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoeraren, eskudiru fluxuen egoeraren eta memoriaren partidak aurkeztu dira laburtuta; baina horiekin batera, eta erkatze aldera, 2018ko ekitaldiko kopuruak eta aurreko ekitaldikoak aurkeztu dira. Kopuru horiek 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitateko Plan Orokorra aplikatuz atera dira.

Bi ekitaldietako partidak alderagarriak dira.

53/2013 eta 8/2014 foru dekretuen bidez onartutako ereduaren arabera aurkezten dira urteko kontuak.

2.4 ZENBAIT PARTIDATAN JASOTAKO ELEMENTUAK

Ez dira aurkezten balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementuak.

2.5 ALDAKETAK KONTABILITATEKO IRIZPIDEETAN

2017ko ekitaldian erabilitako irizpideen aldean, 2018ko ekitaldian ez da kontabilitate irizpideen aldaketa nabarmenik izan.

2.6. AKATSEN ZUZENKETA

Urteko kontuak, honekin batera doazenak, egitean, ez da antzeman huts nabarmenik, 2017ko ekitaldikiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoen berradierazpenik ekarri duenik.

2.7. GARRANTZI ERLATIBOA

Finantza egoeren edo beste gai batzuen gaineko partiden memoria honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, sozietateak 2018ko ekitaldikiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

3.- EMAITZEN BANAKETA

Administrazio Kontseiluak ekitaldikiko emaitzen aplikazioa onartzea proposatuko dio Akziodunen Batzar Orokorrari: 601.327,87 euro galdu dira, eta aurreko ekitaldietako emaitza negatiboei egotziko zaie zenbateko hori.

4.- BALORAZIO ARAUAK

Urteko kontuak formulatzean aplikatu diren kontabilitateko irizpide garrantzitsuenak, jarraian deskribatzen diren hauek dira:

a) Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinak dira mugatutako bizitza erabilgarriko aktiboak.

Partida honetako zenbateko nagusia Patente eta Marken eta Aplikazio Informatikoen kontzeptuei dagokie.

Eskuratze kostuan edo ekoizte kostuan baloratzen dira eta elementu horien bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira. Nola marken hala aplikazio informatikoen bizitza erabilgarria bost urtekoa dela kalkulatzen da.

Ez dago ibilgetu ukiezinik, zeinen bizitza erabilgarria zehazterik ez dagoenik.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean, sortu diren ekitaldian.

Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da; eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira. Azken horiek ekitaldiko emaitzen kontura egingo dira.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialari dagozkion ondasunak eskuratze kostuan baloratzen dira.

Tourmontana Landa Turismoko Elkartetik Tourmontana SArri eskualdatutako ondasunak elkarte horren kontabilitate erregistroetan agertzen ziren balioen arabera kontabilizatu ziren, jasandako BEZa kenduta.

Ibilgetu materialaren amortizazioa metodo linealaren bidez kalkulatzen da sistematikoki, ondasunen bizitza baliagarriaren arabera:

ERAKUNDEA	Bizitza baliagarriaren urteak
Biltokiko eraikina	25
Gizarte etxearen eraikina	23
Aldagelen eraikina eta etxola	22
Instalazioa	15
Makinak	10
Altzariak	10
Tresnak	5
Informatika tresnak	5

Elementua funtzionatzen hasten denetik egiten da amortizaziorako hornidura.

Bestalde, sozietateak lur eta eraikuntzetan nahiz instalazioetan egindako inbertsioak Urturiko Administrazio Batzarrak sozietateari erabiltzeko laga dizkion lurretan egin dira.

29 urtez lagako da, erabakiaren data egunetik aurrera, hots, 1991ko uztailaren 3tik aurrera.

Sozietateak itzulketa funtsa egitea erabaki zuen, inoren jabetzako lurretan eta instalazioetan egindako inbertsioa berreskuratu ahal izateko emakida epea amaitzean.

1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitateko Plan Orokorra onartzen duena, indarrean jartzearekin batera, itzulketa funtsa desagertu da. Horren zenbatekoa lurren balioaren hondaketa gisa hartu da, eta ibilgetu materialaren balio garbiari eragin dio.

Halaber, arau hori aplikatzearen ondorioz, makila gelaren zenbatekoa aktibatu da eraikuntzetan, renting kontratu bidez finantzatutakoa, izan ere, aktibo definizioarekin bat datorrela jo da. Elementu hau baloratzeko 2008ko urtarrilaren 1ean aktibatu zenean ordaintzeke zituen kuotak hartu dira aintzat.

Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ibilgetu materialaren elementuen balioaren analisia egingo da, horietakoren bat hondatuta egotearen zantzurik dagoen egiaztatzeko.

Ibilgetu materialaren erabilera edo bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentze eta konponketa gastuak jazotzen diren unean bertan galera eta irabazien kontuan kargatzen dira.

c) Finantza tresnak

- Finantza-aktiboak

Sozietateak dituen finantza-aktiboak honako hauek dira:

- Zerbitzuak emateagatiko saldo zordunak, langileekin. Ez dira administrazio publikoak sartzen.
- Kobratzeke dauden sorrarazitako interesak.
- Sorrarazi ez diren eta ordaindu diren gastuak.
- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.

Hasieran arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, egindako transakzio kostuak barne. Amortizatutako kostuaren ondoren baloratzen dira berriro.

Bezeroen kaudimen gabeziaren baloraziozko zuzenketa egiteko, banakako saldoak egiteko aukeren berrikusketa eta kaudimen gabezien analisi historikoa baliatzen dira.

- Finantza-pasiboak

Sozietateak dituen finantza-pasiboak honako hauek dira:

- Merkataritzako eragiketengatiko saldo hartzekodunak, langileekin. Ez dira administrazio publikoak sartzen.
- Kreditu erakundeekiko zorrak.
- Sorrarazi ez diren eta kobratu diren sarrerak.
- Jasotako fidantzak.

Amortizatutako kostuaren arabera baloratuta ageri dira.

Iraungitze epearen arabera sailkatzen dira; epe luzekoak eta epe laburrekoak.

d) Izakinak

Eskuratze prezioan baloratzen dira.

Alde batetik, jendearen eskura jartzen diren elementuak sartzen dira, hala nola, golfeko bolak eta makilak, eta bestetik, enpresak eskuratu eta saltzen dituen elementuak (arropa, bolak, teeak, eskularruak), azken inbentarioan gelditzen direnak.

Ekitaldia amaitzean elementu horiek guztiak berriz kontatzen dira.

Izakinen balio garbi bihurtzea eskuratze prezioa edo ekoizpen kostua baino baxuagoa bada, baloraziozko beharrezko zuzenketak egiten dira eta gastu gisa jasotzen dira galeren eta irabazien kontuan.

Izakinen balioaren zuzenketa eragin zuten egoerak hala izateari uzten badio, zuzenketaren zenbatekoa berrikusten da eta sarrera gisa jasotzen da galera eta irabazien kontuan.

e) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzulgarriak ez diren kapitaleko dirulaguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratuko dira eta ematerakoan erregistratuko dira ondare garbiaren baitan.

Zergaldiaren eragina ez da kontuan hartzen, sozietateak zerga oinarri negatibo nahikoak dituelako hura konpentsatzeko, zuzentzia ez aktiboaren irizpideari jarraituz. Izan ere, sozietateak etorkizunean zerga oinarri positiboak sortzeko aukera urria da.

1994ko ekitaldia baino lehen egindako inbertsioek eragindako dirulaguntzetan, ez dago identifikaziorik dirulaguntza jasotako ibilgetuarekin, haren zenbatekoa Tourmontana Landa Turismo Elkartetik Tourmontana SARA eskualdatutako ondasun, eskubide eta betebeharren kontrapartida gisa sartu delako.

Kapitaleko dirulaguntzak emaitzei egozteko, haiek bi taldetan sailkatu dira:

1. 1994ko ekitaldia baino lehenagoko dirulaguntzak:

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 21eko 514/1993 Erabakiaren bidez identifikatutakoak amortizazio portzentajearen eta 1993ko abenduaren 31ra arte egindako inbertsioen narriaduraren ondoriozko galeren arabera egozten dira.

2. Geroztik jasotako dirulaguntzak:

Dirulaguntza horien aplikazioa izan duten ondasunen amortizazioaren arabera egozten dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrera moduan egotziko dira.

f) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateak ez du inolako gasturik kontabilizatzen kontzeptu honengatik, ekitaldian emaitza negatiboak dituelako eta zergari dagokionez ere zerga oinarri negatiboa duelako.

Zuhurtasun irizpideari jarraiki, sozietateak ez du kontabilizatu zerga honetako zerga oinarri negatiboaren ondoriozko kreditu fiskala.

g) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira, hortik eratorritzen den moneta edo finantza korronea jasotzen den unea aintzat hartu gabe.

Hala ere, ekitaldia itxiko den datan egindako mozkinak bakarrik zenbatuko ditu sozietateak, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak barne, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira.

Ondasunak saltzeagatik edo zerbitzuengatik jasotako sarrerak, haiengatik jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera egiaztatzen dira. Goiz ordaintzeagatik, bolumenagatik edo bestelako arrazoiengatik egindako deskontuak eta kredituen nominalera erantsitako interesak horien gutxitze gisa erregistratzen dira. Hala ere, urtebeteko iraungitze epea baino gutxiago izan eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak gehitzen ditu sozietateak, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Bezeroei egindako deskontuak, horiek emateko baldintzak bete daitezkeen unean egiaztatuko dira, salmenten ziozko sarreren murrizketa bezala.

h) Hornidurak eta kontingentziak

Kontabilitateko plan orokorreko kontzeptu esparruan emandako definizioa eta kontabilitate errekonozimenduko irizpideak betetzen dituzten pasiboak horniketa gisa hartzen ditu sozietateak, zenbatekoaren edo deuseztapenaren datagatik zehaztugabeak badira.

Aurreko betekizunak betetzen dituen pasiborik ez da antzeman.

i) Langileen gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak

Bidezko arrazoiren bat egon ezean, erakundeek kalte ordainak eman behar dizkiete langileei haien zerbitzugintza eteten denean.

Lana ezohiko moduan amaitzeko beharrik aurreikusten ez denez eta lana beren borondatez uzten duten langileek edo erretiratzen direnek kalte ordainik jasotzen ez dutenez gero, kalte ordainik eman behar izanez gero, ordainketak langileak kanporatzeko erabakia hartzen den unean bertan kargatzen dira gastuetara.

Sozietateak ez du pentsio konpromisorik edo antzeko betebeharririk langileekin; beraz, ez da kontzeptu horren ziozko zenbatekorik jaso.

5.- IBILGETU UKIEZINA

Beheko taulan ageri dira ekitaldi honetako eta aurreko ekitaldiko saldoen eta mugimenduen xehetasunak, elementu taldeen arabera:

	Aplikazio informatikoak	Patenteak eta markak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	23.096,06	1.450,00	24.546,06
(+) Sarrerak edo intsuldaketak	980,00	0,00	980,00
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	-9.222,00	0,00	-9.222,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
C) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
(+) Sarrerak edo intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
D) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2017ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	14.213,06	1.450,00	15.663,06
(+) Zuzkiduren edo intsuldaketen ziozko gehikuntzak	1.985,20	0,00	1.985,20
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	-9.222,00	0,00	-9.222,00
F) AMORTIZAZIO METATUA, 2017ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	6.976,26	1.450,00	8.426,26
G) AMORTIZAZIO METATUA, 2018ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	6.976,26	1.450,00	8.426,26
(+) Zuzkiduren edo intsuldaketen ziozko gehikuntzak	1.985,20	0,00	1.985,20
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
H) AMORTIZAZIO METATUA, 2018ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	8.961,46	1.450,00	10.411,46
KBG, 2017ko ABENDUAREN 31n	7.877,80	0,00	7.877,80
KBG, 2018ko ABENDUAREN 31n	5.892,60	0,00	5.892,60

Erabat amortizatu diren eta oraindik erabiltzen diren ibilgetuko elementu ukiezinaren zenbatekoa honako hau da:

	2018	2017
Aplikazio informatikoak eta markak	6.378,06	6.378,06
GUZTIRA	6.378,06	6.378,06

Ez da gertatu ekitaldi honetan eragin nabarmenik izan duen edo gerokoetan izan dezakeen inguruabarririk hondar balioei, bizitza baliagarriari edo amortizatzeko metodoei dagokienez.

Sozietateak ez du balio zuzenketarik egin ibilgetu ukiezinaren ondasunetan.

6.- IBILGETU MATERIALA

Beheko taulan ageri dira ekitaldi honetako eta aurreko ekitaldiko saldoen eta mugimenduen xehetasunak, elementu taldeen arabera:

	Lurrak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	3.153.045,32	1.993.730,56	5.146.775,88
(+) Sarrerak edo intsuldaketak	0,00	6.292,65	6.292,65
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-21.072,76	-21.072,76
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2017ko EKITALDIA	3.153.045,32	1.978.950,45	5.131.995,77
C) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	3.153.045,32	1.978.950,45	5.131.995,77
(+) Sarrerak edo intsuldaketak	0,00	1.743,88	1.743,88
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-5.231,24	-5.231,24
D) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2018ko EKITALDIA	3.153.045,32	1.975.463,09	5.128.508,41
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2017ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.111.124,75	1.838.159,40	2.949.284,15
(+) Zuzkiduren edo intsuldaketen ziozko gehikuntzak	69.436,45	52.997,25	122.433,70
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-21.072,76	-21.072,76
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2017ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.180.561,20	1.870.083,89	3.050.645,09
G) AMORTIZAZIO METATUA, 2018ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.180.561,20	1.870.083,89	3.050.645,09
(+) Zuzkiduren edo intsuldaketen ziozko gehikuntzak	69.436,45	43.323,24	112.759,69
(-)Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-5.231,24	-5.231,24
H) AMORTIZAZIO METATUA, 2018ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.249.997,65	1.908.175,89	3.158.173,54
I) LURREN BALIOAREN NARRIADURA, 2017ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.153.892,45	0,00	1.153.892,45
(+) Zuzkiduren ziozko gehikuntzak	57.368,98	0,00	57.368,98
(-)Narriaduraren zuzenketak	0,00	0,00	0,00
J) LURREN BALIOAREN NARRIADURA, 2017ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.211.261,43	0,00	1.211.261,43
K) LURREN BALIOAREN NARRIADURA, 2018ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.211.261,43	0,00	1.211.261,43
(+) Zuzkiduren ziozko gehikuntzak	57.368,98	0,00	57.368,98
(-)Narriaduraren zuzenketak	0,00	0,00	0,00
L) LURREN BALIOAREN NARRIADURA, 2018ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.268.630,41	0,00	1.268.630,41
KBG, 2017ko ABENDUAREN 31n	761.222,70	108.866,55	870.089,25
KBG, 2018ko ABENDUAREN 31n	634.417,26	67.287,20	701.704,46

2018ko eta 2017ko ekitaldiak ixtean, "Lurrak eta eraikuntzak" partidan lursailei dagokien zenbatekoa 416.669,73 euro eta 474.038,72 euro da, hurrenez hurren.

Erabat amortizatu diren eta oraindik erabiltzen diren ibilgetu materialaren elementuen zenbatekoa honako hau da:

	2018	2017
Instalazio teknikoak	757.434,06	634.846,44
Makinak	362.210,88	362.210,88
Tresnak	119.304,02	119.808,58
Altzariak	208.918,50	210.018,55
Informazioa prozesatzeko tresnak	49.087,05	49.806,44
GUZTIRA	1.496.954,51	1.376.690,89

Sozietatearen ibilgetu materiala osatzen duten elementuek ez dute kargarik.

Ez dago ibilgetua erosteko konpromiso irmorik 2018ko ekitaldiaren itxieran. Ibilgetua saltzeko konpromiso irmorik ere ez dago 2018ko abenduaren 31n. Urteko kontu hauek egiterakoan ez dago inguruabar berezirik ibilgetu materialeko ondasunen erabilgarritasunari eragiten dionik (auziak, enbargoak, epe jakineko errentamenduak eta horrelakoak).

Sozietatearen politikan sartzen da aseguru polizak formalizatzea bere ibilgetu materialaren elementu batzuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Administrazioaileen ustez, 2018ko ekitaldia ixtean lortutako estaldurak egokiak dira, estali diren arriskuak aintzat hartuta.

Lagrango golf zelaiko jarduera 2013ko martxoan uztearekin, golf zelai horrek hartzen zituen lursailetan gauzatutako inbertsio guztien narriaduraren hornidurak egin ziren. Eta, 2016ko ekitaldian, baja eman zaie Lagrango Udalaren lursailetan egindako inbertsioei, itzuli egin baitzaizkio jabeari.

7.- IZAKINAK

Abenduaren 31n partida honen osaera honako hau zen:

	2018	2017
Golfeko gaiak	8.507,85	9.635,85
Dendako materiala	6.515,13	7.532,36
Zenbait hornikuntza	1.964,72	2.384,08
GUZTIRA	16.987,70	19.552,29

Izakinak eskueran izateari dagokionez, ez dago mugarik berme, pignorazio, fidantza edo beste arrazoi batzuegatik.

8.- FINANTZA BALIABIDEAK

8.1. Finantza-aktiboak

Balantzeko epe luzerako aktiboaren finantza tresnen gaineko informazioa kategoriatan sailkatu da, honela:

	Deribatuak eta bestelakoak	
	2018	2017
Kobratu beharreko partidak eta maileguak	6.957,80	8.794,30
GUZTIRA	6.957,80	8.794,30

"Kobratu beharreko partidak eta maileguak" epigrafea honela banakatu da:

	Deribatuak eta bestelakoak	
	2018	2017
Salmenta eta zerbitzuen ziozko bezeroak	1.693,80	3.731,95
Epe laburrerako periodifikazioak	5.264,00	5.062,35
GUZTIRA	6.957,80	8.794,30

8.2. Finantza-pasiboak

Sozietatearen balantzeko epe laburrerako pasiboaren finantza baliabideak kategoriatan sailkatu dira, honela:

	Deribatuak eta bestelakoak	
	2018	2017
Ordaindu beharreko partidak eta zorrak	77.425,28	82.413,55
GUZTIRA	77.425,28	82.413,55

"Ordaindu beharreko partidak eta zorrak" epigrafea honela xehakatu da:

	2018	2017
Ibilgetuaren hornitzaileak	57.094,14	55.273,81
Zerbitzuak emateagatiko hartzekodunak	618,75	0,00
Langileak	1.430,07	1.030,61
Epe laburrerako beste zor batzuk	601,00	1.928,70
Epe laburrerako periodifikazioak	17.681,32	24.180,43
GUZTIRA	77.425,28	82.413,55

"Epe laburrerako periodifikazioak" partidan jaso dira 2018ko ekitaldian aurretiaz kontabilizatutako diru sarrerak, sortzapena 2019ko ekitaldian dutenak eta harpidetutako bazkideen kuotei dagozkienak.

8.3. Epemugen araberako sailkapena

Beheko taulan epemugaren arabera sailkatuta ageri dira sozietatearen finantza pasiboak, urte bakoitzeko ekitaldia ixtean epemugaratuko diren zenbatekoak, azken epemugara arte:

	2019
Zorrak	601,00
Beste finantza pasibo batzuk	601,00
Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	59.142,96
Hornitzaileak	57.094,14
Beste hartzekodun batzuk	2.048,82
Epe laburrerako periodifikazioak	17.681,32
GUZTIRA	77.425,28

9.- FUNTS PROPIOAK

Hauxe da funts propioen kontuek izan duten bilakaera ekitaldian zehar:

	2018	2017
Sozietatearen kapitala	1.016.080,00	1.016.080,00
Erreserbak	5.098,54	5.098,54
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(246.631,23)	(57.329,87)
Ekitaldiko emaitza	(601.327,87)	(709.301,36)
Bazkideen beste ekarpen batzuk	450.000,00	520.000,00
AMAIERAKO SALDOA	623.219,44	774.547,31

Sozietatearen kapitala

Sozietatearen kapitala 12.701 akziok osatzen dute, eta horietako bakoitzak 80,00 euroko balio nominala du, oso-osorik harpidetua eta ordaindua.

Akziodunak honela banatzen dira:

AKZIODUNAK	AKZIOAK
Arabako Foru Aldundia	12.698
Bernedoko Udala	1
Lagrango Udala	1
Urturiko Administrazio Batzarra	1

Bazkideen ekarpena

Arabako Foru Aldundiak, galerak konpentsatzeko, ekarpen hau egin du:

- 450.000,00 euroko ekarpena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 20ko 74/2018 Erabakiaren bidez onartua.

10.- ZERGA EGOERA

Sozietateak erakunde publikoekin 2018ko abenduaren 31n zituen saldoen xehetasunak honako hauek dira:

KONTZEPTUA	2018		2017	
	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna
<u>FORU OGASUNA</u>				
Foru Ogasuna zergengatik zordun	10.000,00	0,00	2.940,00	0,00
Foru Ogasuna BEZagatik zordun	30.789,93	0,00	54.867,42	0,00
Foru Ogasuna atxikipenengatik hartzekodun	0,00	9.397,98	0,00	7.046,24
<u>GIZARTE SEGURANTZA</u>	0,00	6.499,47	0,00	6.267,63
AMAIERAKO SALDOA	40.789,93	15.897,45	57.807,42	13.313,87

Zerga ikuskapenak

Aplikatzekoak zaizkion zerga kontzeptu guztiak ikuska daitezke, legezko preskripzio epean.

Sozietateen gaineko zerga

Kontabilitateko emaitza negatiboa bat dator Sozietateen gaineko Zergaren oinarri negatiboarekin.

Sozietateak ez du erregistratu ekitaldi honetako eta aurrekoetako zerga oinarri negatiboen ondoriozko kreditu fiskala, haiek gerora berreskuratzeko aukerarik ez dagoela iritzita.

11.- DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

11.1. Erakundeak bere jardueraren zioz izan dituen diru sarrerak

Erakundeak bere jardueraren ondorioz izan dituen diru sarreraren xehetasunak honako hauek dira:

	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Salgaien salmenta	15.973,93	12.765,77
Zerbitzuak ematea	382.363,82	407.138,73
AMAIERAKO SALDOA	398.337,75	419.904,50

11.2. Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk

Hona hemen partida honen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Ustiapeneko dirulaguntzak	11.608,79	10.594,09
Askotariko zerbitzuak	135.624,42	116.513,93
Salbuespeneko diru sarrerak	6.526,83	867,53
AMAIERAKO SALDOA	153.760,04	127.975,55

Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Golf Federazioak eta Arabako Golf Federazioak ustiapenei emandako dirulaguntzak jasotzen dira "Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk" partidaren barruan (12.2 oharra).

Askotariko zerbitzuen ziozko diru sarreraren iturri nagusiak dira taberna-jatetxearen zuzeneko kudeaketa, publizitate estatikoa, bizikleten alokairua eta ordezko beste jarduera batzuk.

Salbuespeneko diru sarrerak, gehienbat, aseguruak ezbeharrei aurre egiteko egindako horniduren ondorio dira.

11.3. Hornikuntzak

Instalazioak eta bestelakoak mantentzeko behar diren produktuen kontsumoek osatzen dute partida hau.

Hona hemen partida honen xehetasunak:

	2018	2017
1. Salgaien kontsumoa	11.661,99	8.944,91
a) Erosketak (itzulketak eta edozein deskontu kenduta)	9.097,40	9.852,26
b) Izakinen aldakuntza	2.564,59	-907,35
GUZTIRA	11.661,99	8.944,91

11.4. Langileak

Hona hemen langileen gastuen xehetasunak:

	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Ordainsariak, soldatak eta parekoak	161.518,30	146.965,12
Gizarte Segurantzak	52.382,42	47.308,02
GOLF LANGILEEN GASTUAK, GUZTIRA	213.900,72	194.273,14
Ordainsariak, soldatak eta parekoak	78.167,03	66.527,63
Kalte ordainak	2.533,47	0,00
Gizarte Segurantzak	24.307,19	21.617,90
TABERNAKO LANGILEEN GASTUAK, GUZTIRA	105.007,69	88.145,53
LANGILE GASTUAK, GUZTIRA	318.908,41	282.418,67

Langile gastuek gora egin dute, zeren eta, 2018an, taberna-jatetxearen kudeaketa zuzena egiteko, langile gehiago behar izan baitira eta enpresak komertzial gehitu du.

11.5. Ustiapeneko beste gastu batzuk

Hona hemen partidaren xehetasunak:

	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Alokairuak	9.771,03	8.509,35
Konponketa eta kontserbazioa	25.547,09	26.138,64
Profesional independenteen beste zerbitzu batzuk	454.932,21	451.120,70
Aseguru primak	9582,07	9.533,79
Banku zerbitzuak eta antzekoak	1.323,54	1.290,68
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	43.472,87	178.490,55
Hornidurak	38.960,88	47.806,10
Beste zerbitzu batzuk	80.837,01	80.488,96
Beste zerga batzuk	15.689,82	15.664,03
Beste galera batzuk kudeaketa arruntan	15,37	2.937,96
Salbuespenezko gastuak	5.799,94	2.384,57
GUZTIRA	685.931,83	824.365,34

“Beste gastu batzuk” partidako gastuaren beherapena, Izki Golf-a Sustatzeko Planerako jartzearen ondorioa da.

Salbuespenezko gastuak sozietatearen instalazioetan makurrek edo ezbeharrek eragindako kalteen ondorio dira.

11.6. Ibelgetua besterentzearen ondoriozko emaitza eta narriadura

Honako hau da zuzkidura, lagatako lursailetan egindako inbertsioetan aurreikusten den narriaduraren ondoriozkoa:

	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Zuzkidura, Urturiko lurren narriadura	57.368,98	57.368,98
Ibelgetu materialari darizkion galerak	0,00	0,00
GUZTIRA	57.368,98	57.368,98

Urturiko golf zelaian, lagapen epean zeharko zuzkidura lineala da, epe hori bukatzean egindako inbertsioa estaltzea ahalbidetzen duena.

11.7. Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak

Atal hau honela osatuta dago:

	Saldoa, 2018.12.31n	Saldoa 2017.12.31n
Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa	1.985,20	1.985,20
Ibilgetu materialaren amortizazioa	112.759,69	122.433,70
GUZTIRA	114.744,89	124.418,90

12.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Beheko taulan xehakaturik jaso dira balantzean ageri diren jasotako dirulaguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak, baita galera eta irabazien kontuan egotzi direnak ere:

	2018	2017
Ondare garbian ageri direnak	69.351,52	104.541,96
Galera eta irabazien kontuan ageri direnak	11.608,79	10.594,09
GUZTIRA	80.960,31	115.136,05

12.1 Kapital dirulaguntzak

Dirulaguntza horiek honako erakunde hauek emandakoak dira:

ERAKUNDEA	Euroak
Arabako Foru Aldundia	65.935,44
Eusko Jaurlaritza	3.416,08
GUZTIRA	69.351,52

Sozietateak dirulaguntzak ematean ezarri zitzaizkion baldintzak bete ditu.

Hona hemen dirulaguntzen partida horri dagozkion mugimenduak:

	Euroak
A) 2017ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	144.907,35
(+) Gehikuntzak	0,00
(-)Emaitzetara intsuldatua	(40.365,39)
B) 2017ko EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	104.541,96
C) 2018ko EKITALDIAREN HASIERAKO SALDOA	104.541,96
(+) Gehikuntzak	0,00
(-)Emaitzetara intsuldatua	(35.190,44)
D) 2018ko EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	69.351,52

Dirulaguntza horiek guztiek Urturiko golf zelaiaren ibilgetua finantzatzea dute xede.

Naturgolf S.A. betetzen ditu aipatutako dirulaguntzak lortzeko eta mantentzeko ezarritako legezko betekizunak.

12.2. Ustiatzeko dirulaguntzak

Sozietateak, 2018ko ekitaldian, Izki Golf kirol elkartearen dirulaguntzak jaso ditu bere kirol jarduera finantzatzeko.

Hona hemen dirulaguntza horien xehetasunak:

ERAKUNDEA	Emandako zenbatekoa	18.12.31n kobratzeko dagoen zenbatekoa
Izki Golf kirol taldea AFA (1)	1.608,79	0,00
Eusko Jaurlaritza (2)	10.000,00	10.000,00
GUZTIRA	11.608,79	10.000,00

- (1) Arabako Foru Aldundiak Izki Golf kirol elkarteari emandako dirulaguntzak. Elkarte horrek ez du nortasun juridikorik; Naturgolf SA sozietate publikoaren baitan golf jarduerarako sortutako atala da, eta dagokion kirol federazioko kidea da.
- (2) Eusko Jaurlaritzak Challenge España 18 txapelketa antolatzeagatik konpentsazio gisa emandako dirulaguntza.

13.- LOTURA DUTEN ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK

13.1. Eragiketak, lotura dutenekin

Ekitaldi honetan sozietatearekin loturaren bat izan duten entitateekin egindako eragiketak beheko taulan ageri dira:

	2018ko ekitaldiko eragiketen bolumena		2017ko ekitaldiko eragiketen bolumena	
	Gastuak	Jasotako maileguak	Gastuak	Jasotako maileguak
Bernedoko Udala	14.294,17	0,00	14.303,14	0,00
Lagrango Udala	1.395,65	0,00	1.360,89	0,00
Urturiko Administrazio Batzarra	4.611,03	59,60	4.556,35	160,00
Arabako Foru Aldundia	0,00	214,40	0,00	0,00
GUZTIRA	20.300,85	274,00	20.220,38	160,00

2018ko ekitaldian Arabako Foru Aldundiak, galerak konpentsatzeko, 450.000,00 euroko ekarpenak egin ditu. 2017ko ekitaldian zenbateko hau 520.000,00 eurotara igo zen.

13.2. Saldoak, lotura dutenekin

Lotura duten entitateekiko balantzeko saldoen zenbatekoak beheko hauek dira:

	Saldoa, 2018.12.31n		Saldoa, 2017.12.31n	
	Saldo hartzekoduna	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna	Saldo zorduna
Urturiko Administrazio Batzarra	4.611,03	59,60	0,00	160,00
GUZTIRA	4.611,03	59,60	0,00	160,00

Sozietateak, Arabako Foru Aldundiaren kontu orokorren barruan, bere titulartasuneko kontu berezian dauzkan baliabideetatik ez da sortu etekinik, ez 2018ko ekitaldian ez 2017ko ekitaldian.

14.- BESTE INFORMAZIO BATZUK

2018ko eta 2017ko ekitaldietan sozietatearen batez besteko langile kopuruak honako hauek izan dira:

KATEGORIA	2018			2017		
	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira
Golfeko zuzendaria	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00
Administrazioko teknikaria	0,00	1,00	1,00	0,00	0,88	0,88
Komertzial teknikaria	0,82	0,00	0,82	0,00	0,00	0,00
Harreragilea	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00
Harreragile-zaindaria	1,00	0,70	1,70	1,70	0,70	2,40
Zerbitzari laguntzailea	1,00	1,59	2,59	0,94	1,22	2,16
Zerbitzari arduraduna	0,80	0,00	0,80	0,71	0,00	0,71
GUZTIRA	4,62	4,29	8,91	4,35	3,80	8,15

Hona hemen sozietateko langileen banaketa ekitaldiaren amaieran, kategorien eta sexuaren arabera:

KATEGORIA	2018			2017		
	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira
Golfeko zuzendaria	1	0	1	1	0	1
Administrazioko teknikaria	0	1	1	0	1	1
Harreragilea	0	1	1	0	1	1
Harreragile-zaindaria	1	0	1	1	0	1
Zerbitzari laguntzailea	0	0	0	1	1	2
Zerbitzari arduraduna	0	0	0	1	0	1
GUZTIRA	2	2	4	4	3	7

Ez dago % 33ko edo ezintasun handiagorik duen langilerik ez 2017ko ekitaldian ez 2018ko ekitaldian.

Ez dago goi zuzendaritzako kategoriako langilerik ez 2017ko ekitaldian ez 2018ko ekitaldian.

Arabako Foru Aldundikoak ez diren Administrazio Kontseiluko kideek ordainsariak jasotzen dituzte Kontseiluaren bilkuretara joateko dieta moduan. Bilkura bakoitzeko 60,10 euroko dieta ezarrita dago. Ekitaldi honetan guztira 601,00 euroko dietak sortu dira, eta 2017an, berriz, 1.021,70 eurokoak.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatu du, sozietateko administratzaileek paira ditzaketen arriskuak estaltzeko

Auditoria egin duen sozietateak honako diru kopuru hauek sortu ditu bere zerbitzuengatik:

	2018	2017
Kontu auditoretzengatik kargatutako ordainsariak	3.700,00	3.500,00
Beste ordainsari batzuk, zerbitzuak emateagatik	0,00	0,00
GUZTIRA	3.700,00	3.500,00

Ordainsariak Arabako Foru Aldundiak ordaintzen ditu, berak aginduta kontratatu baitira auditoretza zerbitzuak.

15. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietatearen ezaugarriak eta jarduera kontuan hartuta, ez du ondareari, finantza egoerari eta horren emaitzei dagokienez garrantzitsua izan daitekeen ingurumenari lotutako erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornikuntzarik edo kontingentziarik.

Horrenbestez, sozietateak ez du ingurumenari lotutako jarduerarik egin, ez baita arrisku nabarmenik aurreikusi.

16. EKITALDIAN ZEHAR HORNITZAILEEI GERORATU ZAIZKIEN ORDAINKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik eskatutako informazioa, ICACen 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren arabera prestatua eta merkataritza eragiketarak direla-eta hornitzaileei ordaindu beharrekoaren urteko kontuen txostenean jakinarazi beharrekoari buruzkoa. Abenduaren 3ko 31/2014 Legearen azken xedapenetatik bigarrenak aldatu zuen lege hori.

	2018ko ekitaldia	2017eko ekitaldia
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	12,01	11,07
Ordaindutako eragiketen ratioa	11,54	10,55
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	18,65	18,05
ORDAINKETAK, GUZTIRA	773.868,94	920.809,80
Egindako ordainketak, guztira	722.213,21	864.591,69
Egiteko dauden ordainketak, guztira	51.655,73	56.218,11

17.- **GEROKO GERTAERAK**

Ez da jazo geroko gertakizunik, erregistro eta balorazio araua aplikatzeagatik erantsitako urteko kontuen doikuntza dakarten inguruabarrak agerian jartzen dituenik; ez eta memoria honetan informazio gehigarria behar duenik ere.

18.- **14.3. INTERES GATAZKAKO EGOERAK (KSLren 229.3 art.)**

Naturgolf SAREN administratzaileek edo haiei lotutakoek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapitaleko sozietateen Legearen 229.3 artikuluan ezarrita dagoen moduan.

19.- **LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA AFA-REN EKARPENAK**

Taula honetan jasotzen dira langileei buruzko datuen eta Arabako Foru Aldundiaren ekarpenen gaineko informazioa, 2018ko eta 2017ko ekitaldiei dagokiena:

LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA AFA-REN EKARPENAK	2018	2017
Langileen kostuak	318.908,41	282.418,67
Langileen gastuak	318.908,41	282.418,67
Batez besteko plantilla	8,91	8,15
AFAren ekarpenak	450.000,00	520.000,00
Kapitaleko dirulaguntzak	0,00	0,00
Ustiapenerako dirulaguntzak	0,00	0,00
Galerak konpentsatzeko ekarpenak	450.000,00	520.000,00
Kapital handitzeak	0,00	0,00

2018ko EKITALDIKO KUDEAKETARI BURUZKO TXOSTENA

1.- IZAERA ETA JARDUERA NAGUSIAK

NATURGOLF SA sozietatearen helburu dira ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta turismoaren inguruko jarduerak sustatzea, garatzea eta gauzatzea, baldin eta Arabako gizartea eta ekonomia garatzen eta hobetzen laguntzen badute, aberastasuna eta enplegua sortzen dituzten ekimenak sustatuz.

Gaur egun, Urturiko Izki Golf Zelaia ustiatzea eta Izki - Arabako Mendialdea BTT Zentroa kudeatzea dira sozietatearen jarduera nagusiak. Zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- 18 zuloko golf zelai homologatura irtetea;
- 5 zuloko pitch & putt golf zelaira irtetea;
- Praktikatzeoko jokalekua;
- Auto elektrikoak, gurdiak eta makilak alokatzea;
- Makila gela: Armairuak alokatzea;
- Denda;
- Bizikletak eta GPSa alokatzea;
- Aldagelak;
- Golf eskolak: Hastapen eta trebatze eskolak;
- Taberna zerbitzua.

Hona hemen sozietateak 2018ko ekitaldian zehar egindako jarduketak eta hartutako neurri esanguratsuenak:

- Golfa ordaintzeko hainbat modalitate sustatzea, finantzaketa eta ordaintzeko bideak erraztuz.
- Golf Eskola eta bertako Haurren Kluba garatzea.
- Lehiaketen egutegia egitea eta babesak negoziatzea.
- Txapelketak antolatu eta garatzea.
- Interneten sustapen lana egitea www.izkigolf.com webgunearen bidez.
- Sektoreko beste erakunde batzuekiko lankidetzak hitzarmenak hedatzea.
- Produktuak eta zerbitzuak ahalik ondoen saltzeko eskaintzak sortzea.
- Kolektibo eta taldeei banakako arreta ematea.
- Laguntzaileen klubaren jarraipena egitea.
- Jokalari inizatuentzako eta joko laburrerako 5 zuloko ibilbide berria kudeatzea.
- Urturiko golf zelaiko taberna zuzenean kudeatzea.

- "Jardunbide egokiak" turismo kalitaterako programaren 7. zikloa garatzea.
- Españako Challenge Txapelketa, jokalaria profesionalentzat, antolatu eta garatzea.
- Izki Golfen Sustapen Planaren garapena.

2.- NEGOZIOEN BILAKAERA

2087. urtean zehar, enpresak bere jarduera nagusiarekin jarraitu du, zeina golfari loturik baitago guztiz, gastuaren arrazionalizazioari eutsiz kudeaketaren funtsezko puntu gisa. Horrez gain, etorkizunari begira, Izki Golfen Sustapen Planaren alde egin du.

Beheko taulan jardueraren finantza adierazleak ageri dira, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

	2018	2017	%
Negozio zifra	398.337,75	419.904,50	-5,1
Hornikuntzak	11.661,99	8.944,91	30,4
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	153.760,04	127.975,55	20,1
Langileen gastuak	318.908,41	282.418,67	12,9
Ustiapeneko beste gastu batzuk	685.931,83	824.365,34	-16,8
Ibilgetuaren amortizazioa eta narriadura	172.113,87	181.787,88	-5,3
Dirulaguntzen egozpena	35.190,44	40.365,39	-12,8
Finantza emaitza	0,00	-30,00	
Ekitaldiko emaitza	-601.327,87	-709.301,36	-15,2

Negozio zifra: Faktore hauen ondorio da emaitza hori:

- Dendan jokalariek gastua batez beste areagotzea.
- Lantzean behin txapelketa eta lehiaketetan parte hartzea; abonatugabe jokalarien jaitsiera.
- Jokalarien batez bestekoak behera egin du eta ugaritu greenfees bidezko diru sarrerak, jokalaria abonatugabeak ugaritu egin baitira.
- Behera egin du abonatuaren kopuruak.
- Ugaritu egin da alokatze zerbitzuen eskaera, batez ere gurdi elektrikoena eta autoena.
- Egun eraginkorretako jaitsiera.

Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk: Ekitaldi honetan nabarmen egin dute gora beste diru sarrera batzuek, taberna zuzenean kudeatzearen ondorioz izan den fakturazioarengatik; izan ere, 130.000 euro baino gehiago fakturatu dira. Gainerako partidetan, diru-laguntzak mantentzen dira eta salbuespenezko sarrerak aseguruaren konpentsazioarengatik handitzen dira

Langileen gastuak: Pertsonal-gastuak handitu dira hamar hilabetetan zeharreko merkataritza-teknikariaren plantillan eta zuzeneko kontratazioko taberna-jatetxea kudeaketa burutzeko enplegatuetako gehikuntzara altxatzearengatik. 2018 ariketan plantilla ertainak % 9,3 areagotu du beharrei zerbitzu desberdinetan aurre egiteko.



Ustiapeneko beste gastu batzuk: Aurreko ekitaldikoekin erka daitezkeen ustiatze gastuen partidek gora egin dute nabarmen konponketa, tabernaren ustiatze gastu eta Izki Golfen Sustapen Plana abian jartze, ureztatzeko ur-hornidura eta Challenge Txapelketa antolatzea partiden ondorioz.

Amortizazioak, narriadura eta dirulaguntzen egozpena: Eutsi egiten zaie kontzeptu horietarako zenbatekoei, ibilgetutako materialaren amortizazio hornidura txikiagoak.

Ekitaldeko emaitza: 2018 ekialdean galeren jaistea, 15% baino gehiagoa, Merkataritza-Planaren eta Challenge Txapelketaren egiteetako aldaketak batez ere sortu du.

3.- GIZA BALIABIDEAK

Hamarkadak dira enpresak zuzeneko zein zeharkako lan sorkuntza bultzatzen duela Arabako Mendialdean.

2018ko ekitaldiaren bukaeran Naturgolfen plantilla lau langile finkoz osatuta zegoen; 2018ko apirila eta azaro bitartean aldi baterako beste kontratazio batzuk egin dira, nola golf zelaian jendea atenditzeko hala tabernan zerbitzatzeko.

Azpikontratek beste 8 langile dituzte, zerbitzuak eskaintzean enpresaren betebeharrak guztiak betetzeko.

Teknologia berrietara egokitzeko, jendea hartzeko zerbitzua hobetzeko eta datu babes-araudikoa betetzeagatik, 200 ordu erabili ditugu langileak prestatzen.

4.- INBERTSIOAK ETA HOBETUNTZAK

Hona hemen zerbitzua hobetze aldera egindako inbertsioak eta hobekuntzak:

- Web-orriko erreserba zerbitzua.
- Komunikazio aktibo eta jarraitutakoa bezeroarekin.
- Auto elektriko kopuruko igoera.
- Instalazio elektriko eta iturgintza hobetzea.
- Ikasleentzako jarduera programaren garapena
- Sustapen produktu berriak
- Plan Estrategikoa eta Izki Golfen Sustapen Planaren garapena.

5.- SOZIETATEAK AURREIKUSTEN DUEN EGOERA

Laburbilduta, honako helburu hauek ditu sozietateak hurrengo ekitaldietarako: abonatuak fidelizatzea, kanpoko erabiltzaileak ugaritzea eta zerbitzu osagarrien eta dendaren bidez diru sarrera gehiago lortzea, Urturiko golf zelaian.

6.- ETORKIZUNeko EKINTZAK

2019an alor hauek aipatu behar dira, garatu beharreko jardueraren arabera bereizita:

➤ Instalazioak mantentzea

IZKI golf zelaia eta gainerako instalazioak zaindu, mantendu eta hobetzeko lanekin jarraituko da, golf produktuaren kalitateari eusteko xedez.

➤ Bezeroari ematen zaion zerbitzua hobetzea

Bezeroari golf produktu osatua eskaini nahi zaio, jokalaria mota guztientzako egokia eta kalitatea/prezioa erlazio ona duena.

Zerbitzu hobea emateko asmoz, sozietatea kalitatezko turismoa egiteko konpromisoa bermatzen duen programan sartu da. Helburua "Jardunbide Egokia" marka eskuratzea da.

➤ Izki Golfeko plan estrategikoa eta sustapen plana

Izki Golfeko plan estrategikoa 2016an onartu zen, lau ekitaldiko aldi burutzekoa zen merkataritza sustatzeko proiektua garatzeko oinarri gisa. Programaren zatirik handia 2019an gauzatuko dela aurreikusi da, eta horretarako, kategoria komertzialean langile bat kontratatu da.

Plan estrategikoaren eta merkataritza sustatzeko proiektuaren xede nagusiak honetarako bideratu dira:

- Izki Golf zelai berezi eta golf turismoko erreferente bihurtzea, balio handiko zerbitzu, produktu eta esperientzien eskaintza bat taxutuz, inguruko turismo eta aisialdi sektorearekin batera.
- Inguruko merkatuetako bisitari eta jatorri leku nagusietako golf turista gehiago erakartzea; baita txandakako egoitza daukaten golf lehiaketa gehiago egitea ere, aurrekontuaren jasagarritasuna bermatzeko adina jende lortzeko.
- Mendialdeko eta Araba osoko aberastasun turistikoa dinamizatzen lagunduko duten turista berriak lortzea.

Ekintza hauek egingo dira, 2019an, Izki Golf sustatzeko programan:

- Euskarriak egitea: sustapen liburuxka, wetside-a hobetzea, euskarri profesionalak.
 - Irudia eta posizionamendua: komunikazio agentzia, sare sozialetako sustapen plana, online marketineko plana, azoka espezializatueta parte hartzea.
 - Turismo produktuak sortzea: beste golf zelai batzuekin batera, berariazko profilei bideratuak eta beste jarduera batzuekin batera.
 - Itunak eta lurralde garapena: akordioak hurbil dauden hotel eta ostatuekin, erakundeekin lankidetzan aritzeko programa.
 - Ekitaldiak sortzea: eragile espezializatu bideratutako ekitaldiak antolatzea.
 - Merkataritza kudeaketa: tarifak berrikustea, deskontuak eta sustapenak, beste golf zelai eta operadore espezializatu batzuekin harremanak izateko akordioak.
- **Españako Challenge 2019 Txapelketa, jokalari profesionalentzat, antolatu eta garatzea**
- **Jarduera alternatiboen programarekin jarraitzea**
- BTT zentroa garatzea eta sustatzea.
 - Eskualdeko turismoa sustatzea.